

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Abrasivos Manhattan, SA enpresaren hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2020-2021 Abrasivos Manhattan, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01000022011982.

AURREKARIAK

2020ko irailaren 15ean aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2020ko irailaren 4an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailean 23a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

2020. 2021. urteko hitzarmen kolektiboa

I. kapitulua. Baldintza orokorrak

1. artikulua. Aplikazio-eremua

Hitzarmen kolektibo honetan bildutako arauak Abrasivos Manhattan, SA enpresaren Gasteizko lantokiko lan-jarduerak arautzen dituzte.

2. artikulua. Langile-eremua

Hitzarmen kolektibo honek plantilla osoa hartuko du eraginpean, soldata-tauletan azaltzen ez diren lanpostuak izan ezik; hau da, zuzendaritza-karguak eta departamentuetako arduradunak.

3. artikulua. Denbora eremua

Hitzarmen kolektibo hau 2020ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta bi urte iraungo du; hau da, 2021eko abenduaren 31 arte.

Ekitaldi honetan, hurrengo enpresa-hitzarmena automatikoki salatzea erabaki da.

4. artikulua. Osotasunarekiko lotura

Hitzarmen honetan itundutako baldintzek enpresan eta sektorean lehendik zeuden guztiak konpentsatu eta irentsiko dituzte indarrean sartzen direnetik, horien izena, nolakotasuna edo jatorria edozein izanik ere.

Halaber, ordainsari-kontzeptu guztien edo batzuen aldaketa dakarren etorkizuneko legezko xedapen oro hitzarmen honen baldintzek irentsiztat hartuko da. Horrela, oro har hartuta, urteko kopuruan hitzarmen honen guztizko maila gaingiditzen dutenek soilik izango dute eraginkortasun praktikoa.

5. artikulua. Ordaintzeko modua

Enpresak banku-erakundeen edo aurrezki-kutxen bitartez egin beharreko banku-transferentzia bidez ordainduko die soldata langileei, hilaren 30ean.

6. artikulua. Arau osagarriak

Hitzarmen honetan aurreikusi gabeko eta hitzarmen honen edukari kontra egiten ez dion guztian Langileen Estatutuak, Beira eta Zeramikaren arloko Estatuko Hitzarmenak eta aplikatu litezkeen gainontzeko legezko arauak xedatutakoari lotu beharko zaio.

II. kapitulua. Lan-baldintzak

7. artikulua. Lanaldia

Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak benetan lan egin beharreko 1.713 ordu urteko lanaldiari dagozkio.

2020. eta 2021. urteetako lanaldiaren jarduera zehatza urte bakoitzerako ezarri den lan-egutegiak finkatuko du.

8. artikulua. Oporrak

Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren baitako langileek 30 opor-egun izango dituzte; lan-egutegiak finkatuko ditu oporraldien datak.

9. artikulua. Lizentziak eta baimenak

Hitzarmen honek eraginpean hartutako langileek, behar adinako denborarekin jakinarazi eta ondoren justifikatuz gero, baimen ordainduak edukitzeko eskubidea izango dute, Langileen Estatutuaren 37.3 artikuluan edota Beira eta Zeramikaren arloko Estatuko Hitzarmenean azaldutako kasuetan.

10. artikulua. Balioaniztasuna

Hitzarmen honek eraginpean hartutako langileek enpresako maila guztiak barne hartzen dituen lanbide-talde unitarioa osatzen dute.

Lanbide-talde unitario horren barruan, enpresako langile guztien mugigarritasun funtzionala ezartzea erabaki da, giza baliabideen ahalik eta egokitzapen handiena lortzeko; betiere produktzio, funtzio edo antolamenduko arrazoi justifikatuak badaude eta alde aurretik interesdunari eta langileen ordezkariari jakinarazita.

11. artikulua. Lanaren antolamendua

Zuzendaritzari dagokio enpresako atal eta sail guztietako lana antolatzea, eta une bakoitzean indarrean dauden lege-xedapenen arabera arautuko du lana.

III. kapitulua. Araubide ekonomikoa

12. artikulua. Soldata-igoera

2020-2021eko ordainsari-sistema aurreko urteko hitzarmenean aplikatutako kontzeptu berberetan oinarrituta egongo da; hau da, helburuen arabera ordainsarian (aurreko urteko KPlaren eta benetan lan egindako 1.713 orduen arabera).

Halaber, ehuneko 0,8ko soldata igoera adosten da, aurreko urteko hitzarmeneko urteko zenbateko gordinen gainean; aipatutako igoerak honako atal hauei eragingo die: osagarriak, hitzarmen-plusa eta oportetako zein Eguberrietako aparteko sariak.

Igoera horrekin, hitzarmen honen eranskinean agertzen diren 2020ko soldata-taulak araututa geratzen dira.

2021eko soldata igoerari dagokionez, KPlaren igoera aplikatuko da, 2020ko KPlarena hain zuzen. Igoera horrek honakoetan izango du eragina: osagarriak, hitzarmen-plusa eta udako zein eguberrietako aparteko ordainsariak.

Honela ezarriko da helburuen arabera ordainsarien eredia:

Laguntzaile bakoitzak 1.500 euro gordineko pizgarria jasoko du, baldin eta aurreko urteko lan-istripuen zein giza-ezadostasunen kopurua murrizten bada.

Bi helburuetako bakarra betetzen bada, laguntzaile bakoitzak 1000 euro gordineko pizgarria jasoko du.

Helburuetako bat bera ere betetzen ez bada, laguntzaile bakoitzak 500 euro gordineko pizgarria jasoko du.

Langileen ordezkariak eta Prebentzio-zerbitzuko arduradunak aztertuko dituzte istripuen zergatiak banan-banan. Haiek erabakiko dute, pizgarria jasotzeko, zein istripu den konputagarria eta zein ez.

Sistema honek bere baitan hartzen ditu, banaezin, lan egindako orduak, KPla eta helburuen arabera ordainsaria.

Soldata-tauletan ez dira finkatuko helburuen arabera ordainsariak.

Aurreko urteko KPla negatiboa bada, soldata-tauletan ez da inolako murrizketarik aplikatuko.

Ordainsari hori nola banatu behar den interpretatzerakoan edo aplikatzerakoan sortzen diren desadostasunak langileen ordezkariaren eta Zuzendaritzaren artean konpondu beharko dira.

13. artikulua. Aparteko pagak

Udako, Gabonetako eta mozkinengatiko aparteko haborokinak kategoria bakoitzari dagozkion soldata-tauletan adierazitako kopuruaren arabera ordainduko dira, uztailearen 9tik 13ra, abenduaren 10tik 14era eta martxoaren 5etik 9ra, hurrenez hurren.

14. artikulua. Antzinasuna

Antzinasunagatiko osagarri bat ezartzen da, betetako hirurteko bakoitzeko oinarrizko soldataren ehuneko 3 sortuko duena, ehuneko 18 eta sei hirurtekoko mugarekin.

15. artikulua. Garraio-plusa

Lan-egun eta pertsona bakoitzeko 3,14 euroko garraio-plusa ezarri da, ordainduko zaio langile bakoitzari.

IV. kapitulua. Laguntza-kontzeptuak

16. artikulua. Laneko istripu- eta bizitza-asegurua

Enpresak laneko istripu- eta bizitza-asegurua poliza bat formalizatuko du. Poliza horrek honako kapitulu eta arrisku hauek bermatuko dizkie langileei:

- Bizitza-poliza (edozein arrazoirengatik heriotza): 21.000,- euro.
- Istripu-poliza (heriotza): 21.000,- euro.
- Istripu-poliza (baliaezintasuna): 42.000,- euro.

17. artikulua. Gabonsaria

Enpresak, Gabonak direla-eta, gutxienez 75 euro emango ditu gabonsari gisa. Kopuru hori abenduko nominan ordainduko du.

18. artikulua. Erretiro aurreratua

Alderdiek erretiro aurreratueterako saririk ez ezartzea erabaki dute. Hala ere, enpresak erretiro aurreratua emateko konpromisoa hartu du, indarrean dagoen legediari jarraiki. Konpromiso hori ez da zabalduko ordezkaten zailak edo funtsezkoak diren lanpostuak betetzen dituzten langileetara.

19. artikulua. Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarria

Aldi baterako ezintasunaren kasuetan (gaixotasun arruntaren, lan-istripuaren edo lanetik kanpoko istripuaren ondorioz), enpresak Gizarte Segurantzaren prestazioak osatuko ditu soldata errearen ehuneko 100era arte. Jaso beharreko soldata likidoa ez da izango langileak lanean jarraitu izan balu jasoko zukeena baino handiagoa.

V. kapitulua. Xedapen osagarriak

20. artikulua. Laneko segurtasuna eta higiena

Prebentzio-delegatuak eta enpresa zuzendaritzak onartzen dute oso garrantzitsua dela laneko istripuak eta lanbide-gaixotasunak prebenitzea. Hori dela-eta, beharrezkotzat hartzen da arriskuaren prebentziorako plan bat ezartzea. Plan horrek lan-baldintzak hobetzen lagunduko du, eta langileak lan-istripuetatik babestera zuzenduta egongo da. Gai horri buruzko xedapen orokorrrak aplikatuko dira eta, bereziki, azaroaren 8ko 31/1995 Legea ("Lan Arriskuaren Prebentzioari buruzko Legea"), urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua ("Prebentzio Zerbitzuen Araudia"), apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua ("Laneko lekuetako segurtasun eta osasunerako gutxienerako xedapenak") eta gainerako arau aplikagarrietan bildutakoak.

21. artikulua. Osasun azterketak

Hitzarmen honek eraginpean hartutako langileei urtero osasun-azterketa egingo zaie, lanorduetan. Osasunaren zaintzarako berriazko protokolo aplikagarrien arabera egingo da azterketa hori.

22. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritario bat sortzea erabaki da, DMA jaunak, langileen izenean, eta IJRA jaunak, enpresaren izenean, hitzarmen honen sor litezkeen zalantza konpontzeko izango da.

23. artikulua. Lan-hitzarmeneko baldintzak ez aplikatzea

Lan-hitzarmen hau sinatu duten aldeek beren gain hartzen dute bertan adostutakoa bete-
tzeko betebeharra, eta, beraz, Langileen Estatutuaren 82.3 artikulua ez aplikatzekoa, horretarako
berariazko akordiorik gabe.

Gatazka kolektiboen konponketari dagokionez, lan-hitzarmen hau sinatu duten aldeek ados-
ten dute Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei (GEP) buruzko Lanbide Arteko
Akordioari atxikitzea ontzat hartzea. Adierazitako akordioa 2000ko apirilaren 4ko EHAA n argi-
taratu zen.

Hitzarmen hau interpretatzean eta aplikatzean sortzen diren gatazkei dagokienez, PRECO n
xedatutakoari jarraituz, hitzarmenaren batzorde paritariora jo beharko da lehenbizi.

Vitoria-Gasteiz, 2020 irailaren 4a.

2020KO SOLDATA-TAULAK, VITORIA-GASTEIKO LANTEGIKOAK									
KATEGORIAK	HILEKO SOLDATA			APARTEKO SARIAK		URTEKO ZENBATEKO GORDINA GUZTIRA, ANTZINATASUNIK GABE	A MOTAKO ANTZINATASUNA		B MOTAKO ANTZINATASUNA
	OINARRIZKOA	HITZARMEN- PLUSA	GUZTIRA	OPORRAK ETA EGUBERRIAK	ETEKINEN ORDAINSARIA		BIURTEKOA	BOSTURTEKOA	
Espezialista	675,00 €	1.398,00 €	2.073,00 €	2.070,00 €	486,00 €	29.502,00 €	33,75 €	47,25 €	20,25 €
1. mailako ofiziala (Produktzioa)	685,00 €	1.504,00 €	2.189,00 €	2.280,00 €	493,20 €	31.321,20 €	34,25 €	47,95 €	20,55 €
1. mailako ofiziala (Mantenimendua)	700,00 €	1.765,00 €	2.465,00 €	2.290,00 €	504,00 €	34.664,00 €	35,00 €	49,00 €	21,00 €
Planifikazio teknikaria	675,00 €	1.179,00 €	1.854,00 €	1.862,00 €	486,00 €	26.458,00 €	33,75 €	47,25 €	20,25 €
Teknikari komertziala	675,00 €	1.091,00 €	1.766,00 €	1.896,00 €	486,00 €	25.470,00 €	33,75 €	47,25 €	20,25 €
Administrazio teknikaria	675,00 €	1.020,00 €	1.695,00 €	1.721,00 €	486,00 €	24.268,00 €	33,75 €	47,25 €	20,25 €